

Kanpai-hotsak, norentzat?

Euskaldunon Egunkaria, 1990-07-15.

Euskara da European orain milaka urte jaio ziren hizkuntzetatik bizirik gelditu den bakarra.

Eratzen ari diren Europako Estatu Batuak kontuan hartu beharko dute kultura mailan heredentzia bitxi hau, eta bizigarriak eskainiaz, gainera, bizi-sena darion mintzaira berezia hil ez dadin.

Historian zehar indarkeriak bizia ukatu diona, eta "legez" jarraikia eta zanpatua izana; halere, eskolabiderik gabeko hizkuntza ahoz aho mendeak zehar orain arte heldu zaiguna; jakintza eta aurrerapenerako oztopo eta traba bezala aipatu eta kondenatua izan dena, eta halere inguruko bizidun asko zaharrez hiltzen ikusi eta oraindik bizien artean eserita ez ba ere belauniko benik erne dagoena; zeru-lurretatik lehenbailehen akabatzeko adina kolpe txar jaso; hiletak aurreratuz bizirik ehortzi nahi izan zutena, eta, halere, euskaldun zintzo eta langile askori esker isilpeko Ikastolara eraman eta urte gutxi barru berpiztu dena eta gaur dotore askoren ahotan eta izkribuetan indartzen hasia dena, EUSKARA, Euskal Herriaren arnasa, antsika bederen oraindik bizi dena, eta XXI. gizaldira arnas beroarekin iritxiko dena.

Zeren eta orain lehen aldiz EGUNKARI baten aurrerabidea ere irekitzera goazkio.

Ez denok, halere: Lehen, orain eta beti bezala, bada gaur Kredoa esaten bizi den federik gabeko euskaldunik; ez dakit hauek denak konturatuko diren, baina behar adina laguntza faltaz hiltzen bazaigu, hizkuntzarekin batera hiletak izango dituen kanpai-danbatekoak entzungo ditu esker txarrak lotzen dituen talde horretako bakoitzak.

Ehorzletako bat izan delako.